



Izar-Eskola

25/26

Aurkibidea

A. Izar-Eskola

02

B. STRØM

03

C. Eklipse

04

Baliabide berriak

05

D. Eduki didaktikoak

04

Izar-Eskola

Ikasturte honetan, gertatutako sutearen ondoren, gure burua berrasmatu dugu, Planetarioko Izar-Eskola programa “Planetario gabe” eskaintzen jarraitzeko. Urtean zehar ahalik eta gehien malgutu ditugu bisita-formatuak eta dagozkien zientzia- eta dibulgazio-jarduerak.

2025/2026 ikasturteak ezohiko fenomeno bat du ardatz: eguzki-eklipse osoa, 2026ko abuztuaren 12an Nafarroako hegoaldetik ikusi ahal izango dena. Gertakari hori ulertzeko eta gertutik bizitzeko prestatu nahi ditugu gure ikasleak. Esperientzia berrien bidez, xehetasunez hurbilduko gara fenomenora. Emango diren edukiak hezkuntza-maila guztietara egokituta daude, Haur Hezkuntzatik Batxilergora.

Zehazki, Izar-Eskolak bi fase bereizi izango ditu, helburu horiei modu osagarrian heltzeko: Lehen fasean, Tafallako Kulturguneak STRØM erakusketa hartuko du; eklipseen dinamika eta beste fenomeno eta elementu astronomiko batzuk ezagutzeko aukera paregabea. Bigarren fasean, Planetarioak hezkuntza-elementu eta -baliabide berriak eskainiko ditu, jarduera bat ahalbidetuko dutenak Nafarroako hainbat herritan.

A.

Informazioa

Informazio orokorra

- Programa elebiduna euskara-gaztelania.
- Programaren iraupena: azarotik ekainera.
- Bisitaren iraupena: 1h 45m
- Egunero 2 bisita 2 txandatan segidan. 10:00etatik 11:45era eta 12:00etatik 13:45era

Prezioa ikasleko

- 5€.
- Ikasle kop. txanda bakoitzeko: 2 ikasgela

Informazio gehiago eta erreserbak

Eskuratu formularioa link honen bidez:

► [JOAN FORMULARIORA](#)

- Erreserba-eskaera jasotzen dugunean, zurekin jarriko gara harremanetan formalizatzen.

ZALANTZAK

Zalantzak argitzeko:

Telefonoa


948 066 066

Posta elektronikoa

info@pamplonetario.org

Webgunea

www.pamplonetario.org



STRØM

Astronomia inklusiboa

Izar-Eskolak STRØM, Astronomia inklusiboa erakusketan jarri du abian 2025/2026 ikasturtean, unibertsoa zentzumen guztien bidez esploratzera gonbidatzen duen proposamen hezitzaile eta interaktiboa. Tafallan ikusgai, bertan hasiko baita aurten eskola-programa, erakusketak astronomiari buruz hausnartzeko ibilbide bat eskaintzen du: izarren eboluzioa, galaxien egitura, planeta-sistemen eraketa eta horiek behatzea eta

esploratzea ahalbidetzen duten teknologiak.

Erakusketarekin konektatzeko, baliabide digitalak, murgiltze-esperientziak eta informazio-panelak eskaintzen zaizkie ikasleei. Gainera, gida didaktiko bat du, hezkuntza-aprobetxamendua errazten duten orientabide eta jardurekin, astronomiaren arloan ikaskuntza eta behaketarako esperientzia osatua sustatzeko, Eklipserekin zuzenean lotuta: proiektu honek edizio honetako programaren prestakuntza-proposamenak artikulatu eta koherentzia ematen die, Planetarioa beste gune batzuetara hurbiltzeko.

JARDUERA

STRØMek izaera ibiltaria du eta Tafallan egiten duen geldialdiak Izar-Eskola programaren lehen zatia osatzen du.

Azaroaren amaieratik otsailaren erdialdera arte 2025/2026 Izar-Eskola osatzen duten jardueretako bat da.

► **JOAN EDUKIRA**

EGUTEGIA

**Azaroa
2025**

**Otsaila
2026**



B.

EKLIPSE 12/08/26

12/08/26

EKLIPSE

EKLIPSE 12/08/26

Eklipse

Bi gauetako eguna

2026ko abuztuaren 12an, Iberiar Penintsularen zati bat, Nafarroako hegoaldea barne, munduko interes astronomikoko gune izango da, eguzki-eklipse osoa ikusteko aukera izango baitugu bertan. Horrelako fenomenoak ehunka urtean behin gertatzen dira. Beraz, oso gertutik bizi ahal izango dugu esperientzia bakan hau.

Bizitza osoan ahaztuko ez dugun esperientzia hau aprobe-txatuko du Izar-Eskolak zien-



tzia eta teknologia oso modu zainduan ikasleei hurbiltzeko.

Jakin-mina, ikerketa eta fenomeno naturalen azalpena izango dira lan-ardatz nagusiak.

Era berean, alderdi osagarriak azpimarratuko dira, besteak beste, eklipse bat behatzeko beharrezkoa den segurtasuna, osasun oftalmologikoa zaintze aldera.

JARDUERA

Eklipsek izaera ibiltaria du. Otsailaren amaieratik ikasturtea amaitu arte, Planetarioak eguzki-eklipse osoa bizitzeko esperientzia hurbiltzen dizu. Datak eta lekuak jakiteko, begiratu informazioa hemen.

► [JOAN EDUKIRA](#)

EGUTEGIA

Otsaila
2026

Ekaina
2026

Baliabide berriak

Elementu berriak, esperientzia berriak

Hori guztia posible eta erakargarri egiteko, bisita aberasteko bereziki pentsatutako tresna didaktiko berriekin hornitu da Iruñeko Planetarioa. Esperientziak edukiera handiko kupula eramangarri baten azpian egingo den jarduera bat hartuko du barnean, eta bertan murgiltze-proiekzio batekin hasiko gara. Gure zerura begiratuko dugu: elkarrekin ikusiko dugu nola eratzen den gaueko zerua, eta argiago ulertuko dugu nola sortzen den fenomeno harrigarri bezain zirrargarria: Eguzki-eklipsea.

Jarraian, eguzkiari eskainitako tailer praktikoak egingo dira, experimentazioaren eta SunGunen behaketaren bidez. Egun horretan zerua oskarbi badago, zuzenean eta modu seguruan ikusi ahal izango dugu teleskopio horiekin, gure izarra behatzeko esperientziaz erabat gozatzeko prestatuta baitaude.


Eklipsearen kabina ere bisitatuko dugu. Bertan, oso modu errealistan, eklipse osoa ikustean zer sentitzen den bizitzeko aukera izango dugu. Horrela, prestatuta egongo gara datorren abuztuaren 12ko bizipen bakan horretarako.

BERRIA

01.

Kupula eramangarria

Kupularen barruan, 360º-ko irudi inguratzaileen proiektzioari esker, ikasleak kosmosaren erdigunean bertan esertzen dira: izarrek ikus ditzakete, Eguzki Sisteman zehar bidaiatu, konstelazioak aurkitu eta eklipseak nola gertatzen diren jakin.



02.

Simulazio-kabina

Simulazio-kabinak eguzki-eklipsea modu murgiltzailean bizitzeko aukera emango digu. Gertatuko dena aurreratzea lagungarria izango da bere faseak eta ondorioak ulertzeko (tenperatura, animaliak, haizea...), eta unea segurtasunez gozatzeko prestatzeko.

03.

SunGun teleskopioak

SunGun gailu eramangarria da, eta Eguzkia segurtasunez, erraz eta harrigarriro ikusteko aukera ematen du. Lente eta proiektzioen sistema batek eguzki-argia pantaila batean islatzen du, iragazki eta teleskopio konplexuen beharrik gabe.



Eduki didaktiko berriak **Haur Hezkuntzatik Batxilergora arte egokituak**

D.01

Haur eta Lehen Hezkuntza 1

- Eduki pedagogikoak hezkuntza-jardunean oinarritzen dira eta helburutzat dute haur bakoitzaren garapena ahalik eta gehien erraztuko duten oinarriak progresiboki garatu eta finkatzea. Jardun hori ikasketa-esperientzia esanguratsuetan oinarrituko da, objektuak ukitu eta manipulatu, jolasaren, esperimentazioaren eta estimulazio sentsorialaren bitartez.
- Etapa honetan, jakin-mina sustatzeko azalpen erraz eta interaktiboen bitartez, Eguzkiaren eta Ilargiaren kontzeptuak landuko dira, baita zeruan antzemango dituzten gorputzenak ere. Bereziki, eguzki-eklipse baten eraketa eta faseak landuko dira.

D.02

Lehen Hezkuntza 2, 3, 4 eta 5

- Eguzkiaren eraketan eta egituraren oinarritutako kontzeptuak barneratzen hasiko dira: planetak, satelite naturalak eta galaxiak. Horretarako, konposizio kimikoaren ezagutza sustatuko da, Unibertsoan dauden elementu kimiko nagusiekin. Baita eguzki-sisteman kokatuta ere, hau da, gure galaxiaren barruan: Esne Bidean.
- Zeruko gorputzen mugimenduak ikasiko dituzte, baita eklipseak nola sortzen diren ere.

D.03

Lehen Hezkuntza 6, DBH 1, 2 eta 3

- Galaxien, izarren, planeten eta zeruko gorputzen osaeran eta eraketan barneratuko dira.
- Ikuspegi estrukturaletik zein kimikotik, izarren barruan gertatzen diren erreakzioetatik hasi eta planeten konposizio desberdineraino.
- Unibertsoaren egituraren, ezagutzen ditugun galaxien eta gure galaxiaren, hau da, Esne Bidearen konplexutasunean barneratuko dira, baita zeruko gorputzen mugimenduan ere.
- Eklipseen eraketa ulertuko dute eta, zehazki, eguzki-eklipse batena.

D.04

DBH 4, Batxilergoa 1 eta 2

- Unibertsoaren kontzeptu konplexuagoetan sakonduko dute, fisikaren eta kimikaren arloko teoriekin eta azalpenekin.
- Unibertsoaren sorrera eta historia zeharkatuko dituzte. Eta materia ilunean eta izarren arteko espazioan barneratuko dira.
- Izarretan eta, zehazki, Eguzkian sakontzen jarraituko dute, eta horrek eguzki-eklipse bat ulertzera eramango ditu, ikasturte honetan garrantzi berezia duen gaia.

D.